

## JOSE MANUEL ETXEITAREN EUSKAL IDATZI (IA) EZEZAGUN BATZUK

### Sarrera

Artikulu honen helburua da Jose Manuel Etxeitaren lan literario txiki batzuen berri ematea, ia ezezagunak edo guztiz ezezagunak direnak, zeren eta uste baitugu, beren txikian, zabalduago egotea merezi dutela.

### 1. Jose Manuel Etxeitaren bizitza eta lanak

Etxeitaren biografiarako hurbilketa moduan, eta besteak beste, Iñaki Sarriugartek paratutakoa aipa daiteke, hain zuzen Eusko Jaurlaritzak ateratako *Euskararen Lekukoak* bilduman, eta ezer gutxi gehituko da hemen.

Liburu moduan, eta euskaraz, bi nobela –*Josetxo* (1909) eta *Jaioterri maitia*, (1910)– eta poesia-antologia bat –*Au, ori ta bestia* (1913)– argitaratu zituen. Aipatzekoak dira, halaber, itzulpen batzuk eta hainbat poesia. Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographian* ikus daiteke zerrenda zabala. Haien guztien gaineko azterketa eta iruzkin sakonak Jon Kortazarrek egin ditu.

Nobelak dira, lan idatzien artean, Etxeitaren aportazio nagusia gure literaturaren historian eta Labayruk berrargitaratu eta editatu ditu, gaurko irakurlearen eskura jarriz. Edizio horiek, sarrera kritiko egokiekin ornituta datoz (*Josetxoren kasuan*, Aitor Etxebarriak eta Adolfo Arejitak eginda, eta *Jaioterri Maitiaren kasuan*, Iñaki Sarriugartek eginda).

Hala ere, bibliografia horretan, eta ikusi ditudan beste lanean, ez dira aipatzen hemen argitaratzen diren idatziak eta

Etxeitak La Gaceta del Norte egunkarian argitaratu zituenak, 1910. bukaeran eta 1911. hasieran.

## 2. La Gaceta del Norte egunkaria

La Gaceta del Norte egunkari integrista-katolikoa zen, Bilbon urte luzetan argitaratu izan zena. Bertan, eta 1910. urtearen bueltan behintzat, bai integristek, bai nazionalistek –hau da, abertzaleak– sortzen zituzten berriek tokia zuten eta era positiboan ematen ziren. Horiez gain, lantzean behin (egia esateko, oso lantzean behin), euskarazko artikuluak ateratzen ziren. Horrela, Zamarriparen lan batzuk (gero, horietatik asko liburu moduan agertuko ziren) eta Kirikiñoren baten bat ere agertuko dira.

Ez da harritzekoa, beraz, Etxeitak, bere hurbiltasun ideologikoagatik edo, egunkari horretara bere kolaborazioak bidaltzea. Hurbiltasun ideologikoaren lekuko, datu pare bat baino ez. Bata, irakaskuntza laikoaren kontra La Gaceta del Nortek 1913an bultzatutako sinadura-bilketan Etxeitaren izena agertzen da, semearenaren ondoan. Bestea, XX. mendearen hasieran *Patronato social de Buenas Lecturas*en babespean argitaratzen zen *Revista Católica de Cuestiones Sociales* aldizkarian, Etxeita patrono moduan agertzen da.

Horrela ba, eta diogun moduan, hemen eta orain berriro argitaratzen dira Etxeitak La Gaceta del Norten orduan kalera-tu zituen lan batzuk. Alde batetik, *Pelisen amesak* ipuinaren kapitulu batzuk. Ipuin hori ez dago osoan. Esku artean izan dudana La Gaceta del Norteren edizio digitalizatuan ez dut gehiagorik aurkitu, eta aurkitu dudana moduan doa. Horrez gain, gutun ireki bat eta artikulu bat ematen dira. Gutuna Juan Bautista Ereñori zuzendua da, eta Portugalgo gorabeheren gainean Etxeitak bere iritzia ematen du (1910.ean Portugalen lehen errepublika instauratu zen, izaera antiklerikal bortitza zuena, eta Errege Manuel II.ak exiliora joan behar izan zuen). Artikuluak, bestalde, irakaskuntzaren gainean duen ikuspuntua agertzen du.

Ez dago argi noiz hasi zen Etxeita euskaraz idazten. Augustin Zubikaraik iradokitzen du Manilan bizi zen artean aritu zela euskaraz ere (jakina da Manilan nobela bat gaztelaniaz argitaratu zuena, eta Jon Kortarrek diosku Mundakan kontsultatu dituen haren eskuizkribu asko ere gaztelaniaz daudela). Baina inor ez da idazten hasten inolako eredurik edo ikasketarik gabe. Edoze-lan ere, Filipinetatik bueltan –Etxeita 1897ko maiatzean moilaratu zen Bartzelonan–, Mundakan paratutako idatzietan nabari dira garaiko bizkaierako ereduak ondo ezagutzen zituela (Markinako Mogelena, Arratiako Añibarrorena, Resurrekzion Azkue, Txomin Agirre...). Horrez gain, garaiko garbizaletasunak ere bere kuota du Etxeitaren lanetan, baina bere irakurlearenganako hurbiltasunagatik purismoak toki txikia erakusten du.

### 3. Gure edizioa

Iraganeko lan baten aurrean, eta lan hori gaurko egunera ekarteko, hiru posibilitate daude: jatorrian zegoen-zegoen moduan ekarri, jatorrian zegoena gaurko irakurleari hurbildu, baina nola edo hala garaiko sunda arkaikoa gordez, eta gaur eguneko euskara estandar eta normalizatuan ekaini. Bigarren bidea aukeratu da, batez ere kontuan hartuta berrargitaratutako nobeletan hori izan dela bidea, eta hau iritzita, horrela garaiko euskararen lekukotza ondo mantetzen dela. Konkre-tuago, Iñaki Sarriugartek *Jaioterri maitian* jorratutako bidea segitu da. Gainera, moldiztegiko akats nabariak zuzendu egin dira. Bestalde, parentesi artean eta letra etzanez datorrena, jatorrizkoan daude. Zerbait berezi adierazi nahi denean, orri barrenean jarritako ohar batez adieraziko da.

Hemen aurkezten den lana ez da lan luzeago baten atal bat baino. La Gaceta del Norte egunkarian agertu ziren euskal idazle batzuen zenbait lan eta artikulua esanguratsu daude, gaur egun (ia) ezezagunak direnak. Lan honen helburua zera da, artikulua horiek poliki-poliki euskal irakurle interesatuaren begietan ipintea: azken baten, mende bat baino gehiago duten euskal lanak ez dira hain ugari, eta ezin ditugu inoratu.

#### 4. Balorazioa

*Pelisen amesak* izenburuko ipuina da interesgarriena literaturaren ikuspuntu batetik. Zoritxarrez, ez dira aurkitu falta diren atalak. Aurkitu diren atal guztiak (hau da: II, IV, V, VI, VII eta VIII atalak) Jarraituko da batekin eta Echeita'tar J. M. batekin sinatuta datoz. Eta interesgarriena da zeren Etxeita ipuin honetan pioneroa baita fantasia literarioaren arloan. Horrela, hemen agertzen da lehen euskal bidaiari interplanetarioa, aingeru batek gidatua.

Beste alde batetik, hitz teknikoak sartzen saiatzen da, neologismoaren bidetik sortuak, baina ondoan ezagunago edo entzunago izango den erdal hitza parentesi artean jartzen du.

Aipagarria da, halaber, nola agertzen diren, ipuinean zehar, garaian teknologia berriak zirenak (TFSa orduan hasi zen), eguzkitiko energiaren baliamentua eta gaurko droneen aurrikuspena izan daitekeena.

Horregatik guztiagatik, eta beste hainbat gauzagatik, ipuin honek ezagunago izatea merezi du.

#### 5. Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiet Kepa Altonagari eta Iñaki Sarrugarteri artikulu honen prestakuntzan eman dizkidaten iradokizun baliagarriengatik.

#### **Pelisen ametsak**

## II

Pelisen emaztea, senarra baño gazteagaoa zan, eta emazte ta seme-alabak eiten ebezan solo, larra ta mendietako lanak. Pelisek etxe barruko lanetan laguntzen eutsen bestiai.

Londonen egon zan baten erosiriko betaurre (antejo) luze-luze bat eukan, eta gabetan, betaurre orregaz, Illargi ta izarlokai (planetas) begira egoten zan.

Ezautzen ebazan zeintzuk ziran izarrak beure argia eukenak eta izarlokok Eguzkiaren argiaz egunak eukezanak. Emen lez, Illargi ta izarloketan, leorrek eta be egongo zala ta eukan betaurreaz ikusi nai ebazan. Gugandik urre egozan egunetan, uste eban ikusiko ebazala aretan bizi ziranak; baña, eukan betaurrea etzan gauza orretarako, ta geiegi neketzen eban burua, argitu ezin zeitekezan lanakaz, ta nai-ta-naiez neketu bear zan bere burua.

Izarlokok gora ta Illargia bera, ezeban beste berbarik egiten, etxeratu zanik bigarren urtean: emazte ta seme-alabai azaltzen eutsen, izarrak eta Eguzkiak euren argiak eukezala eta izarlokok ezeukela euren argirik. Katalin elizondoko adis-kide dendadunari be, bein izarrak eta bestean izarlokok, ezeutsan beste berbarik egiten, eta batean emazteak eta bestean Kataliñek, esaten eutsen:

–Pelis, elizan eskariak egin ezkeru, eztozu beste gogamenik, izarrak eta izarlokok baño; guk eztogu ezer ulertzen arlo orretan, eta bardin da isil-isillik bazagoz be, izar asmo orrekaz. Izartegiko argiai Jaungoikoak ezarri eutsezan ibilketakaz, itxi yozue dagozan euren tokietan, eta buru ta irudimen ori, erabillizuz emen lur ganean, bizi garean lekuan; artu egizu, solo, larra ta mendien ardurea, ta atsendenduaz, baketuizu neketurik daukazun burua; bada, adimea lausotuko jatzu izarrak buruan artuta jarraituaz.

–Nik, astun daukadaz orain anka ta besoak solo, larra ta mendietako lanak egiteko: Londonera itsas-ontzi baten juateko eretia baneu, ogei ogerleko gora-bera, guztiz ederra ta indartsua erosiko neuke.

Emaztea: Daukazuzan diru guztiakaz erosiko zendukean betaurreaz be, etzenduke ezer ikusiko Illargi ta izarloketan. Aldenduizu, bada, burutik, darabiltzun lan ori, ta bizi izan zaitte irudimena neketu barik!

–Baña Martiña (au zan emaztearen izena), ni ezin egon naz izarloketan zer jazoten dan jakin baga, ta zeru-argi (astro) orreri begira egotea da nire lan eztitsuen.

–Ezti orrek galdu bear zaitu, bada, neure senar maitea! Zerura zuazenean, bidean idoroko dozuz Illargi ta izarlokak, eta orduan, bidebatez ikusiko dozuz guztiak. Siñistuizu Pelis, maite zaituan emaztearen oarpena, esakunea dan lez, agoarentzat ezta, belarrientzat soñu alaia ta biotzarentzat zorrioneko iturria izan oi da beti.

–Ori izan leiteke, Martiña maitea, baña nik lenbailen nai neukez ikusi betaurreaz.

#### IV

Illargia'n, noizbait, bizi-izan ziran adimen argia eukenak. Pelis gelditu zan mendi tontorrean egozan jauregi andi baten orma zarrak birrinduta. Jaungoikoak zeatua (castigado) zirudian Illargiak alde guztietan, birrinduriko tayu ilzalakar! Emetik ikusten gakazan zetaka illunak, dira, noizbait itxasoak egozan lekuetakoko sakonuneak.

Izartzañak diño, batezbeste 384.000 kilometro luze dala emetik Illargira dagon bidea. Pelisek, Illargitik gure izarloka au ikusi ebanean, arriturik jarri zan, izartegiko zeruargi (astro) andiena zirudielako. Illargia baño 49 bidar andiagoa da, ta andiera orregaz agertzen zan. Ikusi ebanean Illargian egoan guztia, aingeruari esan eutsan:

–Goazan orain, aingeru ederra, Merkukin zer dagon ikustera.

Pelisek gaztelarren Mercurio izarlokeari, Merkuki izena ezarri eutsan, euskel-usain apurtxoaz ezautu zeitean.

Merkuki Izartzañak irakatsi euskuen, izarloka au, ostargietan (crepúsculo) ikusten dala; noizbait egunabarrean Eguzkiak urten-orduko, ta noizbait illunabarrean Eguzkia sartuta gerotxeago: beti Eguzkitik urre samar. Lurki au baño, amar bidar txikia-

goa-da. Batezbeste, Eguzkitik Merkurira dagoz 57.250.000 *kilometro*, au da, 149 bidar gugandik Illargira dagon bidea. Emeko 88 egunetan amaitzen dau Eguzki inguruan uztaibideko (órbita) ibilketea; au-da urtea ta guztik laburrak dira, uda, udago-yen, negu ta udabarria. Eguzkitik urrago dagolako, emen baño amasei bidar indartsuagoak dira argia ta beroa.

Lagun ona eukan Pelisek bildurbaga aideak zear joateko, ta bidean joazala, aingeruari esaten eutsan:

–Badakit orain, etxean neukan betaurrea etzala gauza izarloketan zer dagon ikusteko: Illargia'n dagozan mendi andiak ikusten ezpaziran, zelan ikusiko ziran milloek asko kilometro urrunago dagozan izarloketakoak? Zoraturik nengoan betaurreaz beti izarlokai begira zerbait ikusteko ustez! Berbabide (razón) andia euken Katalin dendadunak eta nire emazteak esaten eustenean:

–¡Pelis, betaurre orregaz eztozu ezer ikusiko izarloketan, eta itxi yozu buruauste orri!

Joan eta joan, eldu zan Pelis Merkurira izerdia eriola, ain bero egoan izarloka atan. Edoi moltzo gizenak goyetan; turmonotz eta oñastu izugarriak ugari; euri-jauste errimeak ingurre guztian, eta urjoan (corriente) indartsuak ibai ta erreka guztietan. Ango beroaz, lañoak igotea ta euriak jaustea, berzkoa ta egunaroko jazoera-da.

Leunune edatzuak (extensos) eta mendi andiak dagoz; baña angoo aize ta ur bero-beroetan, ezta iñor bizi: leorreen ikaragarritzko arrak, bareak eta ugarasioak, eta itxaso orietan arrain gorri asko baiño. Izarloka au, ikuskatu (reconocer) ebe-nean, Pelisek esan eusan aingeruari:

–Emen izerdia dariogula gagoz, aingeru maitia; eztago bes-terik, mendiak eta itxasoak; lañoak gora ta euriak bera, betiko uraren ibilketea baño; goazan orain Benukira (Venus) angoo barriak jakitera.

## V

Benuki (Venus). Antxiñatik ezautzen dabe izartzañak izarloka zuri eder au; batzuk esaten deutse Goizizarra, ta beste batzuk Artizarra; izen biok dira aintzakoak. Goizetan noizbait agertzen da Eguzkia baño lentxuago, ta ostera beste batzuetan, illunabarrean Eguztia estaltzen danean ikusi oi da alde atatik beti Eguzkitik urre samar. Bein ardiak mendiratzten diranean eta bein etxeratzten diranean ikusi oi dalako, esaten deutse Aritzarra.

Betaurre (telescopio) indartsuaz, ikusten jakoz zetaka baltzak eta mendi andiak. Guztiz arin dabil Eguzki inguruko uzta bidean (óbita); emeko 225 egunetan egiten dau ibilketa ori, au da urtebete; eta egun orrek lau ataletan ainbanatu ezkerro, jakingo dogu 56 egun dauzala uda, udagoien, negu ta udabarriak, au da, urte aro bakoitxak. Eguzkitik Benukira 107.000.000 *kilometro* luze dan bidea dago; au da, 276 bidar gugandik Illargira dagon bidea. Lurki au baño zerbait txikiagoa da; baña Eguzkitik urrera-go dagolako, argi ta berotasun geiago artzen dau. Eztauko illargirik; baña beti izan da guztiz ospetsua edertasunagaitik.

Eldu zan Pelis Benukira, ta ango mendi ta zugazti orritsuak eta itxaso zabalak ikusi ebazanean, itaundu eutsan aingeruari:

–Lurkira jo ete dogu?

–Ez, Pelis, izarloka au da zuk Benuki esaten deutzazuna.

–Lurkiren antz andia dauka, bada.

–Bai, irudi andia dauka, baña emen eztago etxerik.

–Etxerik ez?

–Ez.

–Nun bizi izaten da bada gizadia?

–Mendietako arzuloetan (cuevas); kebide ta guzti egiñak daukez biztokiak lurpean.

–Ori arrigarria! Emetik mendi ganetik, mendiak eta itxasoak baño eztoguz ikusten; goazan itxas ertzera, toki aretan zer dagon ikustera.



Beratu ziran itxas ertzera, ta izuturik jarri zan Pelis ango bide zabalak, oso egokiak eta ainbeste burtarin (automóvil) joan-eto- rrietan ikusi ebazanean; ganera, gizadia bideak betean, mendi zuloetara sartu-urtenean, danak Aprikarrak baizen baltzak; belarri guztiz luzeakaz; arpegia bizar barik; esku ta oñak uletsuak eta gorputz luzedun zimel-zimelak; Txinatarrak lez, garritik berako ule-txortakaz apaitzen ziran. Janzkia, gizasemeak, garritik belaunetarañoko kaltza laburrak bakarrik, eta gizalabak idunetik oñetaragiñoko estalki bat, eta Jaungoikoa lagun. Alkarregaz berbetan gelditzeko erarik eztauke: jo batera ta tira bestera, salerosle uts-utsak dira euren lanetan. Eztago burdinbide ta su-burdirik, burtariñakaz egiten dira leorreko joan-etorriak.

Bizitokiak arzuloetan dagoz, baña Eguzkiaren beroak bal-tzituta dagoz aize tegian (campo) eliza eder-ederrak eta sale-rosterako azokak, Itxasontziak babak eroan eta azukerea eka- rri, eztira gelditzen lanetan. Sartu-urten asko egiten dau giza- diak elizetara, guztiz elizaleak diralako.

## VI

Pelisek, Benukiko gizadi, abere, leor, itxaso ta aurrerapi- deak ikusi ebazanean, esan eutsan aingeruari:

–Aingeru maitea, ikusi doguz emen dagozan gauza ikusga- rriak eta goazan orain Markira ango barriak jakitera.

Marki (Marte). Izartzañak dirauzkue, Marki dala Eguzkitik bideak neurtu ezker, gugandik urrengo dagona, margo go- rrizteaz, itxaso ta leorak dauzala; 687 emeko egunetan amai- tzen dabela Eguzki inguruan uztaibideko ibilketea; Lurki au baño zerbait txikiagoa dala ta Illargi txiki bi dauzala. Eguzkitik Markira dagoz 225.400.000 kilometro, au da, 587 bidar guga- ndik Illargira dagon bidea. Markitik begiratu ezker, lenengo moteko (magnitud) izar eder bat dirudi Lurkik.

Joan zan Pelis Markira aingerua lagun ebalu, ta jatsi zan larra edatsu (extenso) batera. Emeko abelgorri antzeko abere asko egozan larra atan bedar gorritzat orri-zabal ederduna jaten, eta, gizaseme koskor batzuk, zar ta gazte, danak ule ta bizar zuridunak abelgorriak zaintzen. Mendi ta zugazti andiak, burpide leunak; zelai zabalak; ontzitoki (puerto) nasaiak itxas bazterretan; itxasontzi andiak eta saleroste ugariak alde guztietan. Leorrez burdietetan abelgorriakaz eroaten dabez gauza guztiak erri bate-tik bestera; eztago suburdi, burtarin, zaldi ez zalpurdirik, abelgorri indartsuak baño. Ai zein Mozolo ederrak zoli izarrirituten (resplandecer) daben lumakaz errietan zein basoetan!

Eliza eder asko dagoz erri ta baserrietan, eta errizain arduratsua edonun.

Sei bakalderri (reinos) bakoitza bere Bakaldunagaz (Rei) eta sei izkelgi (dialecto) dagoz Markin; baño, izti bat eta iztegi bat guztientzat. Beraz, guztiz polito ulertzen dabez alkarren berbeta ta idazkunak. Emen zergaitik ez? Sei Bakaldunak eta euren errietako abertzaleak beti dira adiskide zintzoak, eta beti dagoz bakean guda asmo barik.

Pelis, arriturik egoan, Markin bizi ziranak euskera antzeko berbeta eukela jakin ebanean, eta aingeruari itaundu eutsan:

–Nok ekarri ete eban ona gure berbeta maitagarriaren antzekoa?

–Jaungoikoak biralduta, izarloketako gizadiari adimena argitzera aingeruak etorri ziranean, euskeraz irakatsi eutsen guztiai, ta ikusiko dozu, Jupikin be emekoxe berbeta dago.

–Lurkin berbakuntza asko dagoz bada.

–Bai, berbakuntzak oso barrirazu ta aldatzen dira bosteun urtetan, ardura andia artzen ezpada iraun eragiteko... Ona emen doa norbait zerurantz.

Begiratu eban Pelisek eta ezautu ebanean itandu eutsan:

–Nora zoaz Errotarteko Amele?

- Kaisio Pelis, zerura noa.
- Etorri zaite neugaz Jupiki izarloka ederra ikustera.
- Ez Pelis, zerua baño ederragorik eztago. Agur.
- Agur bada, emakume onbidetsua.

## VII

Ikusi doguz, aingeru ederra, emen dagozan gizon txikiak, gaztaña andiak, intxaurrak baizen andiak diran urrak eta libra bat astun diran piko eztitsuak. Goazan orain Jupiki izarloka ederra ikustera.

Jupiki (Júpiter), Izartzañak (astrónomos) diño, ezautzen diran beste izarloka guztiakaz bat eginda baño andiagoa dala Jupiki. Emeko amaika urte ta amar illebetetan amaitzen dau Eguzki inguruko ibilketea; gu bizi garean Lurki au baño 1234 bidar andiagoa da; eztira gertatzen uda, udagoien, negu ta udabarria; osberoa beti da bardin samar toki bakotxean; bost Illargi dabiltz izarloka orren inguruan; Lurki onek baño 25 bidar argi ta bero gutxiago artzen dau Eguzkitik askozaz urrungago dago-lako, 768 millo kilometro batezbesteko dabil Eguzkitik alden-duta; au da, bimilla bidar emendik Illargira dagon bidea. Jupiki-tik begiratu ezker, Lurki onek izar guztiz txikia dirudi.

Argi ta zoli izarritzen (resplandecer) dabelako, aldi luzean batzuk uste eben beraren argia eukala; beste batzuk itxaso utsak eukazala; ta Eguzkiaren argia ixpillu antzera biraltzen deuskula.

Urten zan Pelis Markitik eta jarri zan Jupi(ki)ra egoan zuzenbidean; joanago ta andiago ikusten eban izarloka au, ta ikaragarritzkoa zan urreratu zanean; izartegi guztia estaltzen eban egoan aldetik, oñaztua beizen arin igaro zan txorirudi (aeronave) bat Pelisen ondolik; ikaratu zan au; zer ete zan abarrots zoliaz bidean zear arin joana, ta oso izaturik, itandu eutsan aingeruari.

–Zer izan da, aingeru kutuna, oiñaztua baizen arin gure ondotik igaro dana?

–Txorirudia; emen antxiñatik dabiltz orrek, eta asko ikusiko doguz leorreratu orduko.

–Ona emen beste bat, a ederra!

–Emen Pelis, aurrerapide siñisgatxak dagoz; gizadi asko dago, ta askoren artean, asmu asko izan oi dira.

–Ona ikusbidean ainbat txorirudi, joko ote gaitue?

–Ez, Pelis, zerura doazanak eztira josten.

Jatsi ziran mendi andi baten ganera; arranoak (buitres) baño andiagoak ziran zugatzetan ebiltzan txoriak; mendi bitartean, ibai sakon bateko urjoanak egiten eban zaratea entzuten zan; txoriak guztiz alaitsu abes egiten ziarduten; uri eder bat egoan ikusbidean, amabi eliza urrezkoak zirudienakaz; jauregi asko, ondo apainduak, or-emen uriaren inguruetan; suburbu ta burtarin ederrak bide garbi zabaletan, eta gizadia bideak bitartean. Uriaren inguruko iru mendi tontorretan egozan iru ixpilla andiak sakonunea urirantz ebela. Eguzkiaren argia ta beroa urira bialtzeko otz egoanean. Olan uriak artzen ebazan Eguzkiaren argia ta beroa alde batetik eta ixpilla bialtzen eutsezanak beste aldetik. Ganera, agiri zan zidarbizi (azogue) antzeko itxaso zuri ikusbidean amaitzen etzana, ta zuritasun orrek geituten eben Jupikiren argitasuna.

## VIII

Mendi ganetik beratu zan Pelis sakonetako zelaietara ta itxas bazterretako ontzitokietara, ta arrituago jarri zan bosteun *metro* luze ta berrogetamar zabal ziran itxasontziak ikusi ebazanean. Artaxoriak txor-txor ekiñean abes egiten eben ontziak egozan inguru guztian. Jupikik, Lurkik lez, alde bitan daukaz leorrek eta itxasoak; alde bietan dira aurrerapide bardiñak eta gizadi jazadi jakintsuak. Alde bateko mendi batzuk dauke lur zuri gozogoza, gizadi, abere, txori ta pizti guztiak jaten dabena; baña lur zuri au gozoegia dalako, beste aldeko leorretatik daroe on-

tzietan lur gorri zerbait garratza, ta lur biak nastauaz egiten dabe janari sendo gogotsu jaten dabena. Itxasontziak, bada, lur gorria eroan ta zuria ekarten dabiltz osterak egiten.

Etxe, burtarin, suburdi, txorirudi, itxasontzi ta itxasbazter guztietan dagoz tximistitzak (radiogramas), ari baga berbak artzeko tokiak, eta etxietan dagozanakaz lez, berba egiten da, itxasontzietan eta esan diran toki guztietan dagozanakaz be.

Arrigarria ta siñisgatxa da Jupikiren ardatz inguruko ibilke-tea. Lurki baño 1234 bidar andiagoa da izarloka orretan, amar ordutan igaroten dira eguna ta gaba; euri ta aize indartsuak sarrri gertatzen dira, ta guztiz neketsu ta galbidetsua (peligroso) izango litzake itxasgizonen ogibidea (oficio), Jaungoikoak ondo neurtuta jarri ezpalitu gauza guztiak. Bost Illargi daukaz Jupikik, eta bi gitxienez egoten dira ikusbidean, itxasgizonak galbide ta estutasunetan, argitan egon daitezana. Leorrean be itxasoan lez, gau argiak daukez, ta eztabez bear tximistargiak ez beste argirik ibiltaldiak egiteko. Gizadi, abere, egazti ta piztiak emekoen antzekoak dira; esan leiteke, Lurki Jupikiren atal bat dala.

Gizon eta emakume, neska ta mutil, andi ta txiki, uritar ta baserritarrak, danak jazen dira idunetik oñetarañoeko estalkiaz; aberatsak ondo apainduta; gizasemeak daroe garriko gorria, ta gizalabak zuria; oñetakoak guztiz politak. Arpegi eder-dunak dira; eztauke bizarrik eta ulea moztuta erabilten dabe.

London baño uri andiagok dagoz zelai zabaletan; txorirudiak (aeronaves) eroaten dabez eskutitzak (cartas) alde guztietara.

Bein baten Pelis eskariak egitera elizara joiala, aingeruak esan eutsan:

–Elizara datorren emakume ori zure erritarra da.

Begiratu eban Pelisek eta pozturik jarri zan Antzorako Mari-Manu, Mundaka ta Elantxobera su egiteko mukurrak saltzera joaten zana ikusi ebanean, bada, auzoak ziran bizialdian, eta itandu eutsan:

–Agur, Mari-Manu mukur-saltzallea, nun egon zara ille bi onetan il ziñeanik arrezkero?

–Kaisio, Pelis, zu bere emetik? Betaurreaz ikusi ezin zenduzan gauzak ikustera etorri al zara?

–Bai, zerura noa ta bide batez gelditzen naz izarloketan zer dagoen ikusten.

–Ille bi daroadaz emen eta oraindiño eztot ikusi guztia: urteak bear dira emeko erriak eta aurreratzeak ikusteko.

–Zuzen zoaz Mari-Manu emendik zerura; Saturki, Urati ta Netuki ikusi barik?

–Bai, Pelis, lenbailen nai dot zeruratu.

–Amaika mukur eder saldu zenduan munduko bizialdian!

Etxeita'tar J. M.

*Jarraituko da.*

## **Ikasmenak eta Gizartea**

Ikasmenak, gizonentzat zein gizarterako (Sociedad humana) onak dirala ezin ukatu leike. Ikasmenak dakarre munduan bizi izateko, ta geroko bear diran gauzaren ardurea artzea bide zuzenetik aldendu barik; bada, onbidera eztaroen ikasmenak, galgarriak izan doaz ta eztira ikasi bear. Askotan, ikasmen larregiaz, gazteari burua betetea, ezta ona izaten, larregi jakitea, gizonen egiteak eskatzen dauzalako. Bakotxak ikastea irabazbide bat lortzeko bear dabena, berezkoa da; baña asko gorago igoteak ekarri leikez atsekabeak.

Gizarteari baño gizon bakotxari, urrago jagokaz ikasmen onak diranen lanak, zuzen beragana joten dabelako lan egiñen azkenak: gizarteak, bada, eztau egin bear gizonari lagundu baño, bizibidea billatzen dabillen arazoetan, lanetan eta ikasmenetan, galbidietatik aldentzeko; au da, ardura andiaz aldendu bear dauz gazteak ikasmen galgarrietatik. Goibatzarrak (Gobierno) bere, ondo gogartetuaz argibideak eztirala iñoz

azkenak, bideak baño, eta askotan, onbidera joan bearrean, galbidera joaten dirala, arautu ta zaindu bear dauz, beraren egipideak diran atalak, ardura andia bear daben gauzak diralako; bada ikasmen onakaz sortu oi da gizabide ona.

Ezta errez erabagitea, zeintzuk diran ikasmen onenak gaztearen irabazbiderako; baña, izango dira, mundu onetan onak izateko ta besterako bide leunak eta baketsuak jarraitzea irakasten dabenak: bear diran gauza asko dagoz; egokiak asko geiago, eta jakin bear da zeintzuk diran bearren diran gauzen mugak, urrunegi joan barik galbideari alde egiteko.

Gizartea bear da gizonarentzat, eta gauza guztien ganetik, bear dabena da, bide onetik aldendu barik iraunkorra izatea; onetarako, gizonak jakin bear dabez zeintzuk diran gizarteari sendotasuna ekarriko dautsen bide edo lege onak. Bide leun ta zuzen orrek eztira irodoten, irakurten eta idazten jakiñaz eta jakituna izanaz, *alkar maite izaten jakiñaz baño*; bada, alkar maitetu ezik, ezin egon leiteke gizarterik: alkarregazko maitetasuna da batez bere bear dana.

Alkar maitetzea irakasten daben gizartea da, biziteko, sendatzeko ta gizabide onagaz jarraitzeko alegiñak egiten dauzana: alkarren maitetasuna aldendu ezkerro, datoz azi txarrak, gizartera bedar galgarriak daroezanak; eta alkarren aurrezka aserre jarri ezkerro, ondatzen da, ona ta iraunkorra izateko eregi zan jauregia.

Alkar maitetu bear dogu bada, gizarte onean eta iraunkorrean bizi izateko, eta bide onak jarraitzeko.

Ezteritxazu irakurlea gizarteak eta Goibatzarrak, itun eta lege onak zabaldu bear dabezala, gizonak, alkarren maitetasunaren bidez, pozez ta baketsu bizi izateko?

Palmiro deritxon erri txiki baten aberatsak dira geienak, ikas-tetxietan urte asko eginda, argibide sakonekoak; baña jakitunak diralako, batzuk eta besteak nai dabe izan *alkate* edo *diputau*. Nekezaleak be, batzuk urliaeren eta besteak sendiaren alde, aberats eta nekezale, jakitun eta ezjakiñak, burrukaldi errimeak egi-

ten dabez. Zein onbide ta atsegin dakartsoe erri orretan jakituriak, beti burruka ta naigabepean dabiltzan aberatsei? Bakerik, atsedenic ez zorionik, ezta zetan billatu, eztago ta.

Andik urre samar dagon, Damago deritxon erritxu baten, eztago aberatsik; danak dira nekezale langilleak, geienak irakurten eta idazten baño eztakienak. Jaiegun zein astegun, Jaungoikoari egipideko orduetan eskariak egiñ ezker, eztabe gomuta lanak ondoen egitea baño. Jaiegunetan alkarregaz batzen diranean, agertzen deutsez alkarri, igaro den astean egin dabezan lanak. Salerosle utsak dira; iñok eztau nai *alkatetasuna*; maite dabe alkar; zantzoak eta barreak ugari dira, eta bakotxak berari jaigokazan lanak egiñ ezker, an eztago bakea ta zoriona baño.

Etxeita'tar J. M.  
1910-11-23

## Ereñotar Juan Bautistari

### Mexikon

Neure adiskide maitia: azkenengo idazkian esaten zeuztan, erri orretan lege guztiz askatuak dagozala; baña, aserriak eta gora-berak sarri jazoten dirala.

Bai, Batxi maitia; Portugalen be, gora askatasuna! deadar egin dabe, ta askatze au izanda, bakalduna ta bakartetxietakoai aldendu eragiteko.

Etzaitu arrituten Batxi askatasun orrek?

Norberaren eskubideak kentzea ete da askatasuna?

Elizgizonai euren etxietatik aldendu eragitea ete da Portugal-tarren askatasuna? Bakartegitar gizaseme ta gizalabak, ez ete dira besteak lako abertzaleak, eta ez ete daukez beste erritarrak daukezan eskubideak munduan bizi izateko? Eskubide guztiak oinperatu ta katekaz lotutea ete da Errepublikako askatasuna? Zegaitik ete da Bakartetxeak ondatutea? Gurasoakandik jatorkun zerubidea zein dan irakasten deuskuelako? Gaiztokeri ta



bide okerretatik aldentzen irakasten deuskuelako? Mundurako ta zerurako onak izatea irakasten deuskuelako? Arritu zait Ba-txi, emen gure auzoan jazoten diran gauzakaz!

Eta... eta... auzoan ezeze, etxe barruan be eztabada erri-miak darabilguz: askatasuna polito-polito, guztiz leun, arantza barik dakarzkuela dirauzkue; baña Portugalgoaren antzekoa izan ezkeru arantzaz josita etorriko da.

Elizea benetan maite eztabenen askatasuna, badaezpadako sustrai okerrakaz datorrena izan oi da, gitxien uste danian, okerkeri arrigarriak alde guztietan zabaltzen dauzana, azpikoz ganera ta goikoz bera bizi izate guztiak jarriaz. Askatasun orrek eztira onbidetsuak, galgarriak baño.

...

Aita Santuak, España ta Erromaren arteko auziak argitaratzen dauzan idazkun bategaz, erantzun deutso, Kanalejasek, lengo baten, egin eban itzaldi bati.

Aita Santuak diño, Elizea eztagola zaintzen bakarrik, ikusi ezin leikezan siñismenak; ganera, Elizearen menpean dagozala katolikoak diran lagundi guztiak. Eta konkordatoa; au da, Elizea ta Goibatzarra (gobierno) alkartuaz, artu ziran eskubideak, ezin leikezala urratu ezegaitik, alkarren baimen baga. Elizea makurtzen dala Goibatzarrari jagokozan egipidietan; baña eztabela aztuten ikastetxietako ikasmenaren ardurea daukala Jaun-goikoaren gurariz, eta ganera, Konkordatuaren lenengo aginduak diñoala ikasmenak, katolikoak ikustatuak izango dirala. Ukatuten dau, biar diran argimenakaz, eztabela iñoz emon baimena, Españan jartzeko zerubide (religión) bardingak euren Eliza ta beste ezaugarriakaz; ta amaituten dau esanaz, adierazoten dabela, Giltzapeko Legea<sup>14</sup>, lanean jarten bada, birrinduko dauzala guztioi jagokuzan eskubide onbidetsu ta maitagarriak.

...

---

<sup>14</sup> Ley del Candado. Canalejasek bultzatutako legea (1910), Eliza katolikoaren eskubideen kontraktatzat jo zena.

Aspaldiko barriak dirauzkue, Españatik Brasilerara, lanean doazan geienak, errukarriak dabiltzala erri atan. An, urre ta zidar txatalak idoroko dabezala siñistuar, doaz arutz, eta an geratzen dira katigurik, lan gogorrakaz, urtiak juanarren, etxeratze-ko dirua aurreratu eziñik. Amaika euskaldunek jasoten dau, Batxi, estutasun eta naigabe asko erri orretan, irabazbide guztiakaz diru apur bat aurreratu ezinik! Amaikari damutu jako, guzurrezko urre ta zidarren billa jaioterri baketsutik aldendua!

Euneko amarrera eztira eltzen aberastuta etxeraten diranak: beste larogeta amarrak, erri aretan isten dabez azurrak. Zer deritxazu, Batxi, negargarizko jazoera oni?

Orain, Goibatzarrak, Holanda, Germani ta Italiak egin dabenez, nai dau debekatu atzerrietara duan juatea, geure kalteaz, ango lanetara besoak eroatea dalako; emeko lurlantzak itxita, ango basoak eta zelaiak ekarkor biurtzera doazalako. Ta ganera –arritu zaite, Batxi!– etxadi osoak doaz, ta juan orduko, saltzen dabez emen daukezan ondasunak, atzerrian geratzeko nai-ta-naiez guraso ta seme-alabak bizialdi guztirako. Negar malkoak dariotaz, Batxi, jazoera onek gogoratuaz!

Zu zagozan lurraldan be, badira olako jazoerak: zu ondo zagoz, *alkate* dan adiskide on bat daukazulako; baña zu ere onutz begira ta emeko barriak jakin gurarik zagoz beti. Ta lege askatuak eta obari asko dagozan errian zagozala iarduarren, azkenez dirauztazu, or bere, Elantxoben lez, txakurrak oñutsik dabiltzala.

–Bai, ori uste izan dot neuk be.

Agur, Batxi: zeure adiskide zintzoa da beti.

Etxeita'tar J. M.

1910-11-05

*Jacinto Iturbe*